

START INNOVA PROIEKTUA

Jon Auzmendi, Javi Castaño, Alex Echarri eta Javi Castaño.

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

Gure “Txip Lokalizadorea” proiektua aurrera eramateko egin beharko dugun merkatu segmentazioa burutzeko:

Lehenik eta behin, merkatuaren azterketa sakona egingo dugu gure ideiak asetzen dituen beharrak identifikatzeko. Jarraian, gure merkatuaren baldintzak zein eta nolakoak diren aurreikustea tokatuko zaigu, hau da, zein eta zenbat lehiakide izango ditugun (zuzenak edo zeharkakoak) aurreikusiko dugu zer nolako merkatu motan sartu garen jakiteko (oligopolista edo monopolista). Inguruneari erreparatzea ere ezinbestekoa izango da, izango dugun boterea eta tamaina zehazteko, horrela ingurunean eragiteko aukera izango dugun edo ez jakiteko.

Beraz, hau praktikara eramanez, gure produktuak, kontsumitzaileei gauzak ez galtzeko, edo galdutako gauzak aurkitzeko beharra eskainiko die. Merkatuari erreparatuz, lehiakide zuzenik ez dugula jakin dugu, ez duelako inor txip lokalizadorerik eskaintzen, baina zeharkako lehiakide ugari (apple, samsung...) ditugulaz ere ohartu gara, gaur egungo mugikor eta teknologia ugari barne GPS rastreadoreak ekartzen dituztelako



(beraz, horrekin lehiatzeko rastreadorio on bat izan beharko dugu, mugikorrena baina zehatzagoa etab). Gure merkatua beraz, produktuarekiko monopolioa dugula esan daiteke, baina beharra asetzeko erari dagokioez oligopolio moduko bat. Inguruan eragiteko aukera ona dugula uste dugu, gure txipak ondo ekoizten baditugu eta benetan erosoak badira, mundu osoak gutxienez txip bat erostea lortu dezakegulako, bakoitzak bere ondasun preziatuenak ondo zaintzeko, kapital ugari bilduko genuke, prestigioa ere irabazi eta inguruan eragiteko aukerak lortu.

Hasiera batean, gure produktua publiko osoarentzat pentsatua dago, baina txiki-txikienez erabiltzen jakingo ez dutenez, 12-70 urte tarteko pertsonentzat jartzea pentsatu genuen, baina gaztetxoenei aukera bat emateko, gure txip-ei bi erabilera mota edo maila ezberdin jarriko dizkiegu: “modo sencillo” eta “modo avanzado” lehenengo moduak lokalizadore funtzioa besterik ez du eta askoz ere azalpen zehatzago eta errazagoak izango ditu, eta bigarrenak berriz aukera gehiago eskaintzen dizkio erabiltzaileari (argiak, soinuak, alarmak, denborarekiko

lokalizadore ezberdinak etab.) eta ez ditu gauza guztiak pausoz pauso azaltzen eta erakusten iada kontsumitzailea “abantzatua” delako. Horrela gure ondasuna edozein pertsonarentzako erabilgarria izango da.

